

**EUSKO JAURLARITZAREN, FORU ALDUNDIEN ETA  
EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO ESPARRU-HITZARMENA  
ACUERDO ENTRE EL GOBIERNO VASCO, DIPUTACIONES  
FORALES Y EUSKALTZAINDIA**



Batetik, MIREN AZKARATE VILLAR andreak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburuak Eusko Jaurlaritzaren izenean.

PEDRO SANCRISTÓVAL MURUA jaunak, Arabako Foru Aldundiaren Kultura diputatuak.

ANA MADARIAGA UGARTE andreak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatuak.

LUIS M. BANDRÉS UNANUE jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol diputatuak.

Bestetik, JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE jaunak, Euskaltzainburuak.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko azaroaren 19an.

De una parte, la Excma. Sra. Dña. MIREN AZKARATE VILLAR, Consejera de Cultura, en nombre y representación del Gobierno Vasco.

El Ilmo. Sr. D. PEDRO SANCRISTÓVAL MURUA, Diputado de Cultura de la Diputación Foral de Alava.

La Ilma. Sra. Dña. ANA MADARIAGA UGARTE, Diputada de Cultura de la Excma. Diputación Foral de Bizkaia.

El Ilmo. Sr. D. LUIS M. BANDRÉS UNANUE, Diputado de Cultura, Euskera, Juventud y Deporte de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa.

De otra parte, el Excmo. Sr. D. JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca.

En Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 2002.

Handwritten signatures of the officials mentioned in the text, including Miren Azkarate Villar, Pedro Sancristóval Murua, Ana Madariaga Ugarte, Luis M. Bandrés Unanue, and Jean Haritschelhar Duhalde.

## PARTE HARTZEN DUTELARIK

Lehenengo laurek nork bere erakundearen izenean eta haren ordezkari.

Azkenak Euskaltzaindiaren izenean eta haren ordezkari.

Honako *hitzarmen* hau elkarri aitortzeko gai direlarik, hauxe

## ADIERAZI DUTE

**Lehenengo.**—Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako aldundiek 1918an sortu zutenetik, berauen onespenez eta diru-laguntzaz jardun duela Euskaltzaindiak.

**Bigarren.**—Estatuaren antzaldatzearekin batera, otsailaren 26ko 573/1976 Dekretuak Euskaltzaindiaren berariazko onarpena agertu zuela aurrerantzerako Euskararen Errege Akademia izena emanaz eta haren arautegia onartzuz.

**Hirugarren.**—Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, euskara hizkuntza ofizialtzat hartzeaz bat, Euskaltzaindia euskarari dagozkionetan, erakunde aholku-emaile ofizial izango dela aitortzen duela 6. artikuluan. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak bere babesa, onspena eta diru-laguntza eskaintzen dizkio Euskaltzaindiari.

**Laugarren.**—Goian aipaturiko herriaginte desberdinek, hasieran bakar-

## INTERVIENEN

Los cuatro primeros en nombre y representación de sus correspondientes Instituciones.

El último en nombre y representación de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca.

Teniendo la capacidad suficiente para otorgar el presente *Acuerdo*,

## EXPONEN

**Primero.**—Que Euskaltzaindia, desde que fuera fundada en 1918 por las Diputaciones Forales de Bizkaia, Gipuzkoa, Alava y Navarra ha contado con el apoyo, reconocimiento y ayuda financiera de tales Instituciones.

**Segundo.**—Que al producirse el cambio de régimen político, el Decreto 573/1976 del 26 de febrero reconoce a la Academia de la Lengua Vasca bajo la denominación de Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, al tiempo que se aprueban sus estatutos.

**Tercero.**—Que el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, además de declarar el euskera lengua oficial del País Vasco, reconoce a Euskaltzaindia como institución consultiva oficial en lo referente al euskera. Por ello, el Gobierno Vasco otorga su apoyo, reconocimiento y ayuda financiera a dicha Institución.

**Cuarto.**—Que en los últimos años, los diferentes poderes públicos arriba

ka eta ondoren geroz eta elkarlan es-  
tuagoan, hainbat neurri hartu dituz-  
tela azken urteotan Euskaltzaindia-  
ren ekintzak sustatzeko.

Hori horrela, 1995. eta 2000. urtee-  
tan aipaturiko Herri Agintek bi es-  
parru-hitzarmen izenpetu zituzten  
Euskaltzaindiarekin. Horrezaz gain,  
urtero urteko hitzarmen erantsiak  
atxiki zaizkio indarrean zegoen es-  
parru-hitzarmenari, eta bertan, ze-  
haztu izan dira Euskaltzaindiak urte  
horretan egin beharreko lanak eta  
Herri Agintek Akademiari eskuratu  
beharreko diru-laguntzak.

Hala ere, 2001. urtean Nafarroako  
Gobernuak urte horretako hitzarmen  
erantsia ez izenpetu izanak 2000. ur-  
teko esparru-hitzarmena haustea  
ekarri du eta gainerako Herri Agin-  
teen eta Euskaltzaindiaren aldetik  
Esparru-hitzarmen berria egiteko  
beharra.

Horregatik guztiagatik, hauxe

## HITZARTU DUTE

### Lehena.—Hitzarmenaren xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea bate-  
tik, Euskaltzaindiaren eta, bestetik,  
Eusko Jaurlaritzaren eta Araba, Gi-  
puzkoa eta Bizkaiko lurralde  
historikoetako Foru Aldundien arte-  
ko hitzarmen-oinarriak finkatzea da.  
Era berean, erakundearen aurreran-  
tzeko ekintzabidea ziurtatzeko alde  
desberdinek bere gain hartzen di-  
tuzten betebeharrak, diruzkoak zein  
baliabidezkoak, arautzea.

mencionados han adoptado, en pri-  
mer lugar, individualmente y, progre-  
sivamente, de forma conjunta, distin-  
tas medidas orientadas a fomentar la  
actividad de esta Real Academia de  
la Lengua Vasca/Euskaltzaindia.

En tal sentido, en los años 1995 y  
2000 tales Administraciones Públi-  
cas firmaron con Euskaltzaindia  
Acuerdos marco, que anualmente  
han incorporado los correspondien-  
tes protocolos en los que se detalla-  
ban los trabajos que debía realizar la  
Academia a lo largo del año y las  
subvenciones que debían otorgar los  
Poderes Públicos a la misma.

No obstante, el hecho de que el Go-  
bierno de Navarra no haya firmado  
el anexo del convenio correspon-  
diente al año 2001 ha supuesto la re-  
solución del *Acuerdo* marco del  
2000 y la necesidad para los restan-  
tes Poderes Públicos y Euskaltzain-  
dia de un *Acuerdo* marco nuevo.

En su virtud,

## ACUERDAN

### Primero.—Objeto del Acuerdo

1.1. El presente *Acuerdo* tiene por  
objeto establecer las bases generales  
de colaboración entre Euskaltzain-  
dia, por una parte, y el Gobierno  
Vasco y las Diputaciones Forales de  
los Territorios Históricos de Alava,  
Gipuzkoa y Bizkaia, por otra, así  
como regular el marco de compro-  
misos tanto financieros como mate-  
riales que cada parte asume con el  
fin de garantizar la actividad futura  
de la Institución.

1.2. Beste lurraldeetako Herri Aginteak bildu ahal izango dira *hitzaermen* honetara, aldez aurretik baime-na eskatuz gero, eta sinatzaile guztien adostasuna izanez gero.

2. Urtero honi atxikiko zaion hitzarmen erantsiaren bidez, zehaztuko dira sinatzaile bakoitzak urteko ekitaldian bere gain hartuko dituen egingizunak.

### **Bigarrena.—Hitzarmenaren indarraldia**

*Hitzarmen* hau bost urtez izango da indarrean eta ondorioak izango ditu izenpetzen den unetik, baldin eta helburu horretarako aurrekontu-kreditu nahikoa eta egokia bada hitzarmenkideen aurrekontuetan ekitaldi bakoitzean.

*Hitzarmena* sinatu duten erakundee-takoren batek hitzarmena salatuz gero, gainerako erakunde-sinatzaile guztientzat hitzarmenaren zehaztapen guztiek indarrean jarraituko dute beste testu bat sinatu arte. Testu horrek ezarriko ditu egoera berriarentzako baldintza egokiak. Edozein kasutan ere, ez da ekonomiaren aldetik beste ezzein zamarik alderdi haientzat.

### **Hirugarrena.—Euskaltzaindiak bere gain hartzen dituen betebeharrak**

Euskaltzaindiak, dagokion araudi erregulatzalea eta zehazki, honako baldintza hauek beteko dituela hitza ematen du:

1.2. Podrán incorporarse a este *Acuerdo* los Poderes Públicos de otros territorios adhiriéndose al mismo, previa solicitud, y aceptación de todas las partes intervinientes.

2. Anualmente se concretarán, mediante protocolo que se incorporará al presente, las obligaciones a asumir por los intervinientes en cada ejercicio.

### **Segundo.—Vigencia del acuerdo**

El presente *Acuerdo* tiene una vigencia de 5 años, y surtirá efectos desde su firma, quedando condicionado a la existencia de crédito presupuestario suficiente y adecuado al efecto en los respectivos Presupuestos de las entidades suscribientes para los ejercicios correspondientes.

En caso de denuncia del *convenio* por alguna de las partes suscribientes, el mismo seguirá vigente en todos sus términos para el resto de las partes hasta la firma del nuevo texto, que vendrá a establecer las condiciones adecuadas a la nueva situación. En cualquier caso, no devendrá ninguna carga económica adicional para aquellas partes.

### **Tercero.—Compromisos de carácter general que asume Euskaltzaindia**

Euskaltzaindia se compromete al cumplimiento de la normativa reguladora correspondiente y, en concreto, al cumplimiento de las siguientes condiciones:

### 3.1. *Aurrekontu, ekonomia eta finantza izaerakoak:*

Euskaltzaindiak hurrengo ekitaldirako behin-behineko aurrekontuak aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari urteroko ekitaldiaren irailaren 1a baino lehen.

Aurrekontua behar bezala banakatu behar da; batetik, aurrekontu arrunta eta horretan batez ere, pertsonal-gastuak (norberarenak eta besterenak), funtzionamendugastuak eta kapital-gastuak; eta bestetik, aurrekontua programaka; bertan dagoeneko martxan dauden programak eta azpiprogramak eta hastear daudenak jasoko dira, beti ere aurrekoan erabilitako banakatze-maila berarekin.

### 3.2. *Aurrekontua gauzatzea:*

Euskaltzaindiak urteroko ekitaldiaren otsailaren 28a baino lehen, aurreko ekitaldiari dagokion honako dokumentazio hau aurkeztuko die hitzarmen hau sinatzen duten Herri Aginteei:

- Egoera-balantzea zein ekitaldi bukaerako ekonomia- eta finantza-egoera agertuko dituzten kontabilitate-agiriak; era berean, urteari dagozkion aurrekontu arruntaren zein programakakoaren kitapena.
- Ildo beretik, jasotako dirua zertan erabili den azaltzen duen oroitdazkia aurkeztuko die, eta, horrekin batera, burutzen ari den lana medio, sor daitezkeen gastuen ja-

### 3.1. *De carácter presupuestario, económico y financiero:*

Con anterioridad al 1 de septiembre de cada ejercicio, Euskaltzaindia presentará a la Comisión de Seguimiento sus presupuestos provisionales anuales para el ejercicio siguiente.

El Presupuesto, que deberá presentarse debidamente desglosado, habrá de contemplar de forma diferenciada por una parte el Presupuesto ordinario, con especial hincapié en los gastos en materia de personal (propio y ajeno), gastos de funcionamiento y gastos de capital, y por otra, el Presupuesto por programas, en el que se habrán de incluir tanto los programas y subprogramas ya en marcha como aquellos que se pretendan iniciar y, en todo caso, con idéntico grado de desglose que el anterior.

### 3.2. *De ejecución del Presupuesto:*

Antes del 28 de febrero de cada ejercicio, Euskaltzaindia presentará a los Poderes Públicos suscribientes la siguiente documentación correspondiente al ejercicio precedente:

- La documentación contable que registre la situación económico-financiera de la entidad al final de dicho ejercicio y el balance de situación, así como la liquidación de presupuestos del año, tanto ordinarios como por programas.
- Asimismo, presentará memoria justificativa de la aplicación dada a los fondos percibidos y a la que adjuntará, en su caso, los justificantes originales o fotocopias

torrizko frogagiri edo fotokopia konpultsatuak ere bai.

### 3.3. *Ekintzabidezko baldintzak zein materialak:*

3.3.1. Martxan dauden programen eta azpiprogramen urteko jarduketa-plana aurkeztuko du Euskaltzaindiak; begiz jotako xedeak, kronograma, giza baliabideak, baliabide materialak...

Aipaturiko jarduketa-plana urteroko aurrekontugaiekin batera aurkeztuko da. Urte anitzetako jarduketa-planen kasuan, urteari dagozkionak zehaztuko dira.

3.3.2. Euskaltzaindiak, urteko *hitzarmen* erantsiaren arabera programen eta azpiprogramen zein horiei buruzko diru-kontuen berri emango die sei hilabeteko hitzarmena izenpetzen duten Herri Aginteei.

Halaber, *hitzarmena* izenpetzen duten Herri Aginteeek eska diezaioketen osagarriko edozein argibide eskainiko du Euskaltzaindiak.

3.3.3. Euskaltzaindiak, aurrekontu-ekitaldian zehar, izenpetzen duten Herri Aginteeek osorik edo zati batez finantzatutako programa edo azpiprograma berriren bat martxan jarri nahi badu, haiei dagozkien aurreproiektuak prestatu eta garaiz aurkeztuko dizkie aipatu Herri Aginteei.

Bertan, besteak beste, honako puntuok azalduko dira beharrezko xehetasunez: proiektu berriaren xedea,

compulsadas relativos a los gastos ocasionados por la actividad desarrollada.

### 3.3. *De carácter material y de actuación:*

3.3.1. Euskaltzaindia presentará un plan anual de actuación de los programas y subprogramas que se realicen en el correspondiente ejercicio: objetivos fijados, cronograma, medios humanos, medios materiales, etc.

Dicho plan de actuación será presentado junto con los presupuestos provisionales del año correspondiente. Si se tratase de planes plurianuales, se especificará la parte del año que corresponda.

3.3.2. Euskaltzaindia informará cada seis meses a los Poderes Públicos firmantes de la marcha de los programas y subprogramas correspondientes al protocolo anual, así como de las cuestiones económicas referentes a los mismos.

Euskaltzaindia facilitará, asimismo, cuanta información complementaria le sea solicitada por los Poderes Públicos firmantes.

3.3.3. Si Euskaltzaindia pretendiera iniciar nuevos programas y subprogramas total o parcialmente financiados por los Poderes Públicos suscribientes, en el curso de un ejercicio presupuestario, preparará y presentará con antelación los anteproyectos correspondientes y los remitirá a los Poderes Públicos señalados.

En dichos anteproyectos, entre otros extremos, especificará debidamente: la finalidad del nuevo proyecto, du-



iraupena, kostua (urtez urtekoa eta guztirakoa) eta baliabideak (giza jendezkoak, antolamenduzkoak, materialak).

Proiektu horientzat Herri Aginteen diru-laguntza egonez gero, honako hitzarmen honen bosgarren atalean aipatzen den urtean urteko hitzarmenaren osagarri izango den hitzarmena sinatuko da.

#### 3.4. *Bestelako betebeharrak:*

3.4.1. Jarduketa-planean begiz jotako langintzak honetan edo hartan etenik izanez gero, horren guztiaren berri emango dio Euskaltzaindiak hitzarmen honetan sortzen den Batzorde Teknikoari bai eta doan eskaini ere, behar adinbateko laguntza bere txostenez eta programa zein ikerketa-proiektuen oroitadazkiak zuzen jabetzeko.

3.4.2. Euskaltzaindiak berak alde zuzenetik finkaturiko baldintzak betetzen dituzten ikertzaileei bere azterlan eta ikerketa zerbitzuetara sarbide emango die.

3.4.3. Unibertsitateekin eta beste ikasketa-erakunde batzuekin, hizkuntzalaritzaren alorreko ikertzaileen prestakuntza lanean parte hartuko du Euskaltzaindiak, dagozkien hitzarmenen bidez.

3.4.4. Indarrean dauden legeak eta gainontzeko xedapenek ezarri duten bezala, hizkuntza-zerbitzua emango die Euskaltzaindiak kasuan kasuko Herri Aginteei: Eusko Jaurilaritzari,

ración, costo (año por año y en total) y medios (humanos, materiales, de organización).

Si hubiera financiación complementaria para estos proyectos por parte de los Poderes Públicos se suscribirá el correspondiente acuerdo complementario al anual que se menciona en la cláusula quinta del presente acuerdo.

#### 3.4. *Otros compromisos:*

3.4.1. Euskaltzaindia informará a la Comisión Técnica que se crea en el presente Acuerdo de cuantas incidencias pudieran afectar al normal desarrollo de las actividades previstas en el plan de actuación y prestará desinteresadamente cuanta asistencia se precise para la interpretación de los informes y memoria de los programas y proyectos de investigación.

3.4.2. Euskaltzaindia permitirá el acceso a sus servicios de estudio e investigación a todos aquellos investigadores que, previo cumplimiento de los requisitos a tal efecto establecidos con anterioridad por Euskaltzaindia, así lo deseen.

3.4.3. Colaborará con las universidades y otras Instituciones académicas en la formación de investigadores en materia lingüística a través de los Acuerdos correspondientes.

3.4.4. Euskaltzaindia ofrecerá a los Poderes Públicos (Gobierno Vasco, Diputaciones Forales, Ayuntamientos y otras instituciones públicas) sus servicios como órgano consulti-

*(Handwritten marks and signatures)*

foru aldundiei, udalei eta gainerako erakunde publikoei.

**Laugarrena.—Hitzarmena izenpetzen duten Herri Aginteek Euskaltzaindiarekiko dituzten betebeharrak**

4.1. Hitzarmena izenpetzen duten Herri Aginteek, urteko aurrekontuak jasotzen dituzten lege-egitasmoetan edo foru-arauetan, Euskaltzaindiarentzako diru-izendapena onartzeko ardura hartzen dute beren gain, Euskaltzaindiak *Hitzarmen* honetan jasotakoa bete ahal izan dezan.

4.2. *Hitzarmena* sinatzen duen herri-aginte bakoitzari dagozkion aurrekontu-sail horien zenbatekoa, hitzarmen honen bosgarren atalean zehaztutako prozedura bete ondoren, Jarraipen Batzordeak proposatutako aurrekontu-fondoari atal honetan finkatzen den ekarpen-ehunekoa ezarriz ateratzen dena izango da.

4.3. Izenpetzen duen herri-aginte bakoitzak honako ekarpen-maila hau izango du Euskaltzaindiari diruz eusteko:

Eusko Jaurlaritzak: esleitutako diru-laguntza osoaren %66,25.

Arabako Foru Aldundiak: esleitutako diru-laguntza osoaren %5,60.

Bizkaiko Foru Aldundiak: esleitutako diru-laguntza osoaren %16,94.

vo en lo referente a la lengua, conforme a lo establecido en las leyes y demás disposiciones vigentes.

**Cuarto.—Compromisos de los Poderes Públicos firmantes del Acuerdo frente a Euskaltzaindia**

4.1. Los Poderes Públicos firmantes del Acuerdo se comprometen: a velar por la efectiva asunción de las medidas necesarias que hagan posible la consignación en los correspondientes proyectos de Ley o normas forales presupuestarias de carácter anual, de la dotación necesaria a los efectos de conceder a Euskaltzaindia las ayudas que hagan posible la realización de lo previsto en el presente *Convenio*.

4.2. El importe de dichas partidas, para cada entidad pública suscribiente, será el equivalente a la aplicación del porcentaje de aportación que se fija en esta misma cláusula al fondo presupuestario propuesto por la Comisión de Seguimiento, de acuerdo con el procedimiento establecido en la cláusula quinta de este *Acuerdo*.

4.3. Los distintos poderes públicos firmantes tendrán el siguiente nivel de aportación para la financiación de Euskaltzaindia:

Gobierno Vasco: 66,25% del total asignado.

Diputación Foral de Alava: 5,60% del total asignado.

Diputación Foral de Bizkaia: 16,94% del total asignado.

Gipuzkoako Foru Aldundiak: esleitutako diru laguntza osoaren %11,21.

4.4. Aurreko puntuan finkatutako ehunekoak urtero berrikusi ahal izango dira. Horren ondorioz, Jarraipen Batzordeak ehuneko horiek aldatzea beharrezkotzat jotzen, badu, indarrean dagoen *Hitzarmenaren* berrikuspena eskatuko du.

### Bosgarrena.—Prozedura

5.1. Jarraipen Batzordeak, Euskaltzaindiak urteko ekitaldiko urriaren 1a baino lehen 3. klausulan eskatutako dokumentazioaren aurretiazko aurkezpena egiten badu, esaniko agiriak aztertuko ditu eta hurrengo urterako aurrekontu-fondoa berriz hornituko. Dirutza horri laugarren klausulan zehaztutako ehunekoak ezarri ondoren, finkatuko da herri-aginte bakoitzak nork bere Aurrekontu Nagusietan Euskaltzaindiari diru-laguntza gisa eman beharrekoa.

5.2. Aurrekontu-fondoak bereiztu beharko ditu Euskaltzaindiaren finantzazio arrunterako zatia zein hurrengo urteko programak eta azpi-programak finantzatzekoa. Hori guztia, urteroko protokoloan jasoko da, behin diru-laguntzen behin betiko kopuruak erabakiz gero.

5.3. Protokoloa sinatu ostean, aldez aurretik bidalitako behin-behineko aurrekontutik aldentutako behin be-

Diputación Foral de Gipuzkoa: 11,21% del total asignado.

4.4. Los porcentajes establecidos en el párrafo anterior podrán ser objeto de revisión anual. A tal efecto, caso de que la Comisión de Seguimiento estime oportuna la modificación de dichos porcentajes, habrá de instar la revisión del presente *Acuerdo* en dicho extremo.

### Quinto.—Procedimiento

5.1. La Comisión de Seguimiento, previa presentación por Euskaltzaindia de la documentación exigida en la cláusula tercera, y con anterioridad al 1 de octubre de cada ejercicio, estudiará los documentos citados y propondrá el fondo presupuestario correspondiente al año siguiente, que a su vez, supondrá la cifra sobre la cual se aplicarán los porcentajes de la cláusula cuarta y que dará la cuantía a incluir por cada institución pública en los respectivos proyectos de Presupuestos Generales como subvención a Euskaltzaindia.

5.2. El fondo presupuestario aludido distinguirá la parte que del mismo habrá de dedicarse a financiación ordinaria de Euskaltzaindia como institución de aquella otra que se deberá dedicar a financiar los programas y subprogramas en vigor en el ejercicio siguiente. Dichos extremos pasarán a formar parte del Protocolo anual, que se adoptará una vez sean conocidas y definitivas las cifras subvencionables.

5.3. Si tras la suscripción del protocolo anual resultase la aprobación por parte de Euskaltzaindia de un


tikoa onartzen badu Euskaltzaindiak, onartutako aurrekontuaren ale bat emango zaio Jarraipen Batzordeari jakitun egon dadin. Eta behar izanez gero, izenpetzen duten Herri Aginteen organo eskumendunei azter dezaten eta egokiak diren neurriak har ditzaten.

5.4. Urtean urteko diru-laguntzen ordainketa, beharrezkoak diren administrazio-bideak betetzerik izanez gero, era honetan bideratuko da:

- Lehen ordainketari (laguntza osoaren erdia) dagokionez, hitzarmen erantsia izenpetu eta bi hilabetera.
- Laguntza osoaren bigarren erdia 1. ordainketari dagokion lanen beteazte-memoria aurkeztu eta hilabetera.

#### **Seigarrena.-Jarraipen Batzordearena**

6.1. *Hitzarmen* hau izenpetu eta, beranduenik, hilabeteko epean Jarraipen Batzordea izendatuko da, hitzarmenean jasotakoa gauza eta koordina dezan.

6.2. Ondoko kideoz osatuko da Jarraipen Batzordea:

- a) Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua edo eskuordetza ematen dion sailburuordea, batzordeburuari dagozkion egitekoak beteko dituen, besteak beste, bileretara deitu eta gai-zerrenda finkatu.

presupuesto definitivo distinto al remitido con carácter provisional, aquél deberá ser remitido a la Comisión de Seguimiento a los efectos de su conocimiento, y, en su caso, traslado a los órganos competentes de las Administraciones comparecientes para su análisis y adopción de las medidas que se consideren adecuadas al respecto.

5.4. Cada año el devengo de las subvenciones se realizará, siempre que lo permita el cumplimiento de los trámites administrativos pertinentes, de la siguiente manera:

- El primer pago consistirá en la mitad del total y se llevará a cabo en el plazo de dos meses a partir de la firma del convenio anual.
- La segunda mitad del total, una vez presentada la memoria de ejecución correspondiente al primer pago y en el plazo de un mes.

#### **Sexto.-De la Comisión de Seguimiento**

6.1. Firmado el presente *Acuerdo*, se nombrará en el plazo de un mes, una Comisión de Seguimiento para asegurar la debida realización y coordinación de lo establecido en el mismo.

6.2. La Comisión de Seguimiento estará formada por los siguientes miembros:

- a) Consejera de Cultura del Gobierno Vasco o viceconsejero/a en quien delegue, que desempeñará las funciones de Presidente de la Comisión, y como tal efectuará la convocatoria de sus sesiones y fijará el orden del día.

b) Arabako Foru Aldundiaren ordezkaria.

c) Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria.

d) Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkaria.

e) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako dagokion zuzendaria edo ordezkoa, batzordeko idazkariari dagokion egitekoa beteko duena.

f) Euskaltzainburua edo estatutuen araberako ordezkoa.

g) Euskaltzaindiko idazkaria edo berak izendaturiko ordezkoa.

h) Euskaltzaindiko diruzaina edo berak izendaturiko ordezkoa.

i) Euskaltzaindiko Iker sailburua edo berak izendaturiko ordezkoa.

j) Euskaltzaindiko Jagon sailburua edo berak izendaturiko ordezkoa.

Jarraipen Batzordeko kideek gai zehatzetarako aukerako teknikarien laguntza izan dezakete.

6.4. Jarraipen Batzordearen eginkizun dira hitzarmen hau behar bezala betetzeko koordinazio- eta kontrol-lanaz gain:

a) Euskaltzaindia hitzartutako lanak zuzen eta garaiz bideratzen ari den erabakitzea.

b) Euskaltzaindiari «corpus-plan-gintza»ren alorreko beharrak edota lehenatasun-irritziak aurkeztea.

b) Representante de la Diputación Foral de Alava.

c) Representante de la Diputación Foral de Bizkaia.

d) Representante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

e) Director/a de la Viceconsejería de Política Lingüística que corresponda, o sustituto/a, que desempeñará además las funciones de Secretario de la Comisión.

f) Presidente de Euskaltzaindia o quien estatutariamente le sustituya.

g) Secretario/a de Euskaltzaindia o sustituto/a.

h) Tesorero/a de Euskaltzaindia o sustituto/a.

i) Director/a de la Sección de Investigación de Euskaltzaindia o sustituto/a.

j) Director/a de la Sección Tutelar de Euskaltzaindia o sustituto/a.

Los miembros de la Comisión de Seguimiento podrán ser asistidos por técnicos facultativos para asuntos puntuales.

6.4. La Comisión de Seguimiento, además de las funciones generales de coordinación y control de la ejecución de este Acuerdo que le son asignadas, tendrá las específicas siguientes:

a) Determinar si Euskaltzaindia está realizando satisfactoriamente y dentro de plazo los trabajos convenidos.

b) Presentar, en su caso, a Euskaltzaindia su opinión acerca de las necesidades o prioridades en el campo del «corpus planning».

c) Herri Aginteek diruz lagundutako koei dagokienez, Euskaltzaindiaren programen eta azpiprogramen emaitzak argitaratzeari buruzko alde egoiak ezartzea.

d) Urteko aurrekontuko diru-kopuru guztia proposatzea, hitzarmena izenpetzen duen herri-aginte bakoitzak dagokion organoaren bidez Euskaltzaindiari izendatutako diru-laguntza eman diezaion hitzarmen honetan ezarritakoaren arabera.

e) Euskaltzaindiari, euskarari dagokionez, erakunde aholku-emaile den aldetik, dagozkion itzal eta eskubi-deak segurtatu eta zaintzea bere aginte-esparruetan.

f) Euskaltzaindiaren urteko ekintza-plan guztiak eta aldiari-aldiko txostenak jaso eta aztertuko dituen Batzorde Teknikoa izendatzea.

6.5. Jarraipen Batzordea eratzeko quorumak haren kideen arteko gehiengo behar izango du.

6.6. Jarraipen Batzordearen erabakiak aho batez hartuko dira.

6.7. Urtean zehar, gutxienez, bi biler egingo dira, lehena lehenbiziko seihilabetean kontu-errendapena aztertzeko, eta bigarrena bigarren seihilabetean, hurrengo urterako Aurrekontuak aztertzeko eta proposatzeko.

c) Establecer los aspectos pertinentes a la publicación de los resultados de los programas y subprogramas que hayan sido subvencionados a través del presente Acuerdo.

d) Proponer el monto total anual del fondo presupuestario para que cada uno de los Poderes Públicos firmantes del Acuerdo, a través de los respectivos órganos competentes y si éstos lo autorizan, proceda a asignar a Euskaltzaindia su correspondiente subvención nominativa, según lo establecido en este Acuerdo.

e) Asegurar y velar, dentro de su ámbito, por el respeto y derechos que corresponden a Euskaltzaindia en su calidad de institución consultiva oficial en lo referente al euskera.

f) Nombrar una Comisión Técnica encargada de recibir y analizar los informes respectivos presentados por Euskaltzaindia así como los balances anuales.

6.5. El quórum para la válida constitución de la Comisión de Seguimiento será el de la mayoría de sus componentes.

6.6. La Comisión de Seguimiento adoptará sus acuerdos por unanimidad.

6.7. Al cabo del año se habrán realizado dos reuniones como mínimo, la primera en el primer semestre, al objeto de examinar el estado de cuentas, y la segunda en el segundo semestre, al objeto de examinar y proponer el fondo presupuestario para el ejercicio siguiente.

Hauetaz gain, Jarraipen Batzordeko bi kidek gutxienez hala eskaturik, Jarraipen Batzordeko buruak hilabeteke epean gehienez, ez-ohiko bilerarako deia egin ahal izango du.

### Zazpigarrena.—Batzorde Teknikoarena

7.1. Hiru kide izango ditu Batzorde Teknikoak Jarraipen Batzordeak izendatuak. Programen eta azpiprogramen jarraipena zuzen bideratu ahal izateko bai lanaren alderdi teknikoaz eta bai ekonomikoaz dakiten ordezkariak izendatuko dira batzorde honetarako.

7.2. Batzorde Teknikoaren berariazko eginkizunak honako hauek dira:

a) Euskaltzaindiaren urteko jarduketan plan guztiak eta aldiari aldiko txostenak jaso eta aztertuko ditu. Kontu-errendapena aztertzeke, lehenbiziko sei hilabetean bilduko da, eta aurrekontuak aztertzeke, bigarren sei hilabetean.

b) Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren onepenez, beharrezkoa gertatzen den guztietan programa eta azpiprograma desberdinen lantaldeekin aurrez aurreko bilerak egingo ditu, besteak beste, hitzarmendutako programa eta azpiprogramen behin-behineko ebaluazioa eginez eta lan bakoitzaren egoera zehatza bertan ikuskatuz.

Además de las señaladas, el presidente de la Comisión de Seguimiento, a petición como mínimo de dos miembros, podrá convocar en el plazo máximo de un mes una reunión extraordinaria de la citada Comisión.

### Séptimo.—De la Comisión Técnica

7.1. Esta comisión estará compuesta de tres miembros nombrados por la Comisión de Seguimiento. Para esta Comisión se nombrarán representantes con conocimientos tanto técnicos como económicos de los trabajos, con el objeto de realizar un adecuado seguimiento de los diferentes programas y subprogramas.

7.2. Son funciones específicas de la Comisión Técnica:

a) Recibir y analizar tanto los planes anuales de actuación como los informes respectivos presentados por Euskaltzaindia. La primera reunión, al objeto de analizar el estado de cuentas, se realizará en el primer semestre, y la segunda, a fin de examinar el monto presupuestario, será en el segundo semestre.

b) Siempre que se considere necesario, y contando con la aprobación de la Junta de Gobierno de Euskaltzaindia, celebrará reuniones con los grupos de trabajo de los diferentes programas y subprogramas y, entre otras cosas, realizará una evaluación provisional de los programas y subprogramas acordados y revisará in situ la situación del balance anual.

Handwritten marks and signatures on the right margin, including a large 'e' and a signature.

- c) Urteko balantzea aztertuko du.
- d) Beharrezko argibideak eta ebaluazio-txostenak aurkeztuko dizkio Jarraipen Batzordeari.

7.3. Euskaltzaindiak bidezko ikusten dituen arrazoibide edo alegazioak azaldu ahal izango dizkie Batzorde Teknikoaren txostenei.

#### **Zortzigarrena.—Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak**

Hitzarmen hau suntsiaraziko da, ondoko gertaera hauetariko bat suertatzen denean:

- a) Sinatzaile diren alde guztien adostasuna.
- b) Euskaltzaindiak bere eginbeharretan hutsegite larria izatea. Jarraipen Batzordearen alde aurretiko adostasunez, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak tramitaturiko espedienteen halaxe adierazitakoan hartuko da hutsegite hori aintzakotzat.
- c) Sinatzaile den edozein alderen salaketa, agiri honetako bigarren hitzarkinean aurreikusten diren ondorioekin.
- d) Zuzenbidean bidezkoa den edozein.

#### **Bederatzigarrena.—Diru-itzulera**

*Hitzarmen* hau bere horretan betetzen ez bada, edota emandako dirua beste eginkizunetarako erabiltzen, ez da ordainketarik jarraituko eta xede horretarako lehendik jasotako laguntza kopuruak dagozkien admi-

- c) Llevará a cabo el análisis del balance anual.

- d) Presentará a la Comisión de Seguimiento toda la información e informes evaluativos que se consideren necesarios.

7.3. Euskaltzaindia podría presentar, en su caso, las alegaciones que considere pertinentes a los informes de la Comisión Técnica.

#### **Octavo.—Causas de resolución del acuerdo**

El presente Acuerdo se resolverá cuando se produzca alguna de las siguientes circunstancias:

- a) Mutuo acuerdo entre todas las partes suscribientes.
- b) Incumplimiento grave de los compromisos contraídos por Euskaltzaindia, cuando así quede declarado por expediente tramitado al efecto por la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, previo acuerdo con la Comisión de Seguimiento.
- c) Denuncia expresa de cualquiera de las partes, con los únicos efectos a los que se refiere la cláusula segunda de este documento.
- d) Cualquier otra procedente en derecho.

#### **Noveno.—Reintegro de cantidades**

El incumplimiento del presente *Acuerdo* o utilización para otros fines de la cantidad concedida implicará la suspensión de pagos con la obligación de reintegrar las cantidades obtenidas por tal concepto a las



nistrazioetan diruzaintza nagusietara itzuli beharko dira, berez legozkiokeen lege-ekintzez eta isunez gainera.

*Hitzarmen* hau ez betetzeagatik sor daitezkeen eskubide, kanon, tasa, zerga, konpentsazio eta kalte-ordainak, bera mamitzeko beharrezkoak liratekeen baimen eta lizentziak eskuratzea bezala, Euskaltzaindiaren eginbide dira.

### **Hamargarrena.—Hitzarmenaren izaera**

*Hitzarmen* honek administrazio izaera du, eta Jarraipen Batzordeari dagozko haren edukien interpretazioa. Interpretazio horren garapenezko auziak dagozkien auzitegi kontentzioso-administratiboek ezagutu eta ebaztiko dituzte azken buruan.

### **Hamaikagarrena.—Hitzarmenaren kudeaketa-ardura**

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, *Hitzarmen* honen kudeaketaren arduradun denez, honako eginkizun hauek dagozko:

- a) Batzorde Teknikoa gidatu.
- b) Euskaltzaindiarekiko etengabeko kudeaketa harremanak izatea.
- c) Euskaltzaindiari diruz eusten dioten herri-aginte guztiak kudeaketa eta emaitza guztien jakinaren gainean edukitzea eta beraien arteko informazio-lana bideratzea.

Tesorerías de las Administraciones correspondientes, sin perjuicio de las acciones legales y sanciones que correspondan.

El pago de los derechos, cánones, tasas, impuestos, compensaciones e indemnizaciones a que diere lugar el incumplimiento del presente *Acuerdo*, así como la obtención de todos los permisos y licencias para su ejecución, serán llevados a cabo por Euskaltzaindia.

### **Décimo.—Naturaleza del acuerdo**

El presente *Acuerdo* tiene naturaleza administrativa, correspondiendo a la Comisión de Seguimiento la interpretación de su contenido. Las cuestiones derivadas de esta interpretación serán, en última instancia, conocidas y resueltas por los tribunales contencioso-administrativos competentes.

### **Undécimo.—Responsabilidad de la gestión del acuerdo**

A la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, como responsable de la gestión de este *Acuerdo*, corresponde:


- a) Dirigir la Comisión Técnica.
- b) Mantener con Euskaltzaindia continuas relaciones referentes a la gestión.
- c) Mantener informados a todos los Poderes Públicos que subvencionan a Euskaltzaindia de toda gestión y resultados obtenidos y coordinar todo intercambio de información entre ellos.

**Hamabigarrena.-Azkena**


Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, partaide ezberdinek honako dokumentu hau orrialde guztietan izenpetzen dute boskoitzez.



MIREN AZKARATE VILLAR,  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura  
sailburua / Consejera de Cultura del  
Gobierno Vasco




PEDRO SANCRISTÓVAL MURUA,  
Arabako Foru Aldundiaren Kultura  
diputatua / Diputado de Cultura de la  
Excma. Diputación Foral de Araba




LUIS M. BANDRÉS UNANUE,  
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura,  
Euskara, Gazteria eta Kirol diputatua /  
Diputado de Cultura, Euskera, Juventud  
y Deportes de la Excma. Diputación  
Foral de Gipuzkoa

**Duodécimo.-Final**

Para la debida constancia de lo convenido y con la expresa declaración de su cumplimiento, por las partes se firma y rubrica en todas sus páginas el presente documento por quintuplicado ejemplar.



JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE,  
Euskaltzainburua / Presidente de  
Euskaltzaindia



ANA MADARIAGA UGARTE,  
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura  
diputatua / Diputada de Cultura de la  
Excma. Diputación Foral de Bizkaia